



Obra eta Zerbitzuetako brigadarako 1. mailako ofizial errementari bat barne-promozioz kontratazeko deialdia arautzen duten oinarriak.

Lehenengoa. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua Obra eta Zerbitzuetako brigadarako 1. mailako ofizial errementari bat kontratu finkoaz kontratatzea da, lehiaketa-oposizio bidez eta barne-promozioz.

Lanpostua C sailkapen-taldearen barruan dago, C2 azpitaldean, eta 10. ordainsari-maila du, berrikuspen-fasean. Era berean, 1. hizkuntza-eskakizuna dauka esleituta, eta 2015eko urtarrilaren 1eko derrigortasun-data du.

Lan-kontratua lanaldi osokoa izango da.

Udalak finkatuko ditu urtero laneko egutegia eta ordutegia, lanpostuaren ezaugarrietara eta zerbitzuaren premietara egokituta.

Bigarrena. Funtzioak.

Deialdi honen xede den lanpostuaren funtzioak hauek dira, besteak beste:

* Arduradunak edo zerbitzuburuak langilearen lanpostuari eta kategoriari dagokienez agintzen dizkion zereginak, besteak beste:

* Errementaritza-zerbitzuko lanak antolatzea eta banatzea eraikinetan, bide publikoan, seinaleztapenean eta hiri-altzarietan.

* Mota guztietako burdineria, barandak, ate eta itxituren burdineria, farolak, frontoien itxiturak, hesiak, ateak, saskiak fabrikatzea eta muntatzea, soldatze-lanen bidez.

* Sarrailak, sarraila-zilindroak, burdin hesiak konpontzea eta mantentzea, giltzak eta ixteko sistemak aldatzea, giltzarik gabeko irekierak, erreskateak, blindajeak, kopiak, maisu-giltzak, bandalismoa...

* Hiri-altzariak konpontzea eta mantentzea: bankuak, paperontziak, aparkalekuak, piboteak...

* Haurrentzako jolas-guneak eta jolasak jartzea, konpontzea eta mantentzea.

* Trafiko-seinaleak, pasabideak eta plaka adierazgarriak jartzea, konpontzea eta mantentzea.

* Eraikin publikoetako altzariak (mahaiak, aulkiak, tiraderak, armairuak...) konpontzea eta mantentzea.

* Eraikin publikoetako ateak, leihoak, pertsianak, barandak, olanak eta abar konpontzea eta mantentzea.

* Udal-eraikin eta -lokal guztiak ikuskatzea eta zaintzea eta haietako giltzen eta sarrailen erregistroa eramatea.

* Estolderien saretak eta kutxatilen tapak konpontzea.

* Artisau-forjaketako lanak, eskulturak eta abar egitea.

* Materialak eta tresnak erostea eta fakturazioa berrikustea.

* Kanpoko enpresei aurrekontuak eskatzea, bai eta enpresa horien eta sailak kontratatutako beste enpresa batzuen lanak gainbegiratzea ere, bere eskumeneko lanetan.

* Saileko makinak eta/edo erreminten mantentze-lanak gainbegiratzea, konponketako eta mantentze-lanetako abisuak artatzea eta makinetako olio-mailak berrikustea.



- * Soldagailua, multzo elektrogenoa, erremintak eta askotariko makineria maneiatzen ongi jakitea.
- * Norbere saileko eta beste sail batzuetako beste zerbitzu batzuekin lankidetzan aritzea; esaterako, atezainekin, mantentze-lanetako langileekin... (ikastetxeak, kulturetxea, kiroldegia...).
- * Ohiko lanalditik kanpo matxurez arduratzea, hala eskatzen zaionean. Obra-brigadaren zerbitzura (elektrizitatea, ura, etab.) atxikitako gainerako langileekin lankidetzan aritzea, hala eskatzen zaionean.
- * Lankideei aholkuak eta laguntza ematea, ezagutza eta/edo esperientzia handiagoa duen zereginetan.
- * Kualifikazio tekniko bera edo txikiagoa duten langileak koordinatzea, hala badagokio.
- * Deskribatu direnez gain, antzeko izaera eta kualifikazioa duten beste zeregin batzuk egitea, bere gaitasun eta trebetasun profesionalekin bat etorritik, ezarritako helburuak lortzeko.
- * Arduradunak edo zerbitzuburuak agindutako beste zeregin batzuk, betiere bere lanpostuarekin eta kategoriarekin lotuta.
- * Izangaiak gai izan behar du eraikuntza-xehetasunen eta instalazioen krokis edo plano bat interpretatzeko, eta elementuen zuinketa eta behin betiko kokapena gauzatzeko; familia bereko materialak bereizteko: letoizko brontzea, altzairuzko burdinurtua, etab.

Hirugarrena. Hautagaien baldintzak eta betekizunak

Lehiaketa- oposiziorako deialdi honetan onartuak izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko estaturen bateko herritarra izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsita nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea, urriaren 30eko 5/2015 Legeak, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateratua onesten duenak, 57. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Halaber, espainiarren eta Europar Batasuneko estatuak duen herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak ez badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, mendekoak badira.

Kontuan hartuta lan-kontratu baterako postua dela, aurreko paragrafoetan adierazitako pertsonen gain, Espainian legezko egoitza duten atzeritarrek parte hartu ahal dute prozesuan.

Kontratatzeko unean, lan-jarduera gauzatzeko bete behar diren administrazio-baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

b) Hauetako tituluren bat izatea: Eskola Graduatua, Oinarriko Batxilergoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza – LOGSE, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea edo maila bereko ikasketa bat.

c) Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

d) Administrazio publikoetako edozein erakunderen zerbitzuetatik diziplinazko prozedura baten bidez bananduta ez egotea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasungabetua ez egotea.



e) B gidabaimena edo baliokidea izatea.

f) Lasarte-Oriako Udalean E edo C2 titulazio-taldeko lanpostu batean jardunean egotea, kontratu finko batekin edo funtzionario plazarekin, eta bi urteko antzinatasuna izatea.

Laugarrena. Eskabideen aurkezpena.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko interesa dutenek, dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute, Udalaren web-orrian dagoen eredu normalizatuaren arabera (www.lasarte-oria.eus).

Eskabideak 20 egun baliouduneko epean aurkeztuko dira, deialdia *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udalean aurkeztuko dira edo, bestela, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16. artikuluan ezarritako moduan.

Lasarte-Oriako Udalean eskabideak telematikoki edo paperean aurkez daitezke.

Prozedura elektronikoa Lasarte-Oriako Udaleko Erregistro Telematikoaren bidez aurkeztu ahalko dira (<https://www.lasarte-oria.eus/eu/tramiteak>), eskabidea behar bezala beteta eta lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskatzen den dokumentazioa erantsita.

Paperezko eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko dira, Okendo, 1 - 20160 - Lasarte-Oria helbidean, egun balioudunetan 14:00ak arte.

Posta-bulegoetan aurkeztutako eskabideak aurkezpen-epaia amaitu baino lehen entregatu beharko dira bulegoetan, gutun-azal ireki batean, posta-zerbitzuko funtzionarioak data eta zigilua jarri diezaien. Horrela soilik ulertuko da aurkezpen-egunean sartu zirela posta-bulegoan.

Aurki daitezkeen egitezko akatsak ofizioz edo interesdunek eskatuta zuzendu ahalko dira. Ez dira egitezko akatsak hartuko hauek: eskabidean merezimendurik ez aipatzea, merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak ez txertatzea, edo dokumentuok ez izatea oinarrietan adierazitakoaren arabera beharrezkoa den informazio zehatza.

Interesdunak horren inguruko hutsegiteren bat hautemango balu, egitateak aurkezteko epea amaitu arte zuzendu ahal izango du; epe hori amaitu ondoren, ez da onartuko zuzenketa.

Onarpen-eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren alkate-udalburuari igorriko zaizkio, eta betekizun hauek bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren betekizun guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

b) Eskabidean aipatutako merezimenduen zerrenda eta dokumentazioa, merezimenduen fasean ebaluatu ditzaten.

Oharra: Ez dira kontuan hartuko eskabidean aipatu ez diren merezimenduak, ez eta haiekin batera dokumentaziorik erantsi/ziurtatu ez dutenak edo eskabideak aurkezteko epetik kanpo aurkeztu direnak ere.

Dokumentu motari eta edukiari dagokionez, nahitaez eta gutxienez hauek izan beharko dute:

1. Lan- edo zerbitzu-esperientziarekin lotuta:

Emandako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, zerbitzu horiek eman diren administrazioan horretarako eskumena duen organoak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren ehuneko eta betetako lanpostuaren eginkizunak zehaztuko dira.

Lasarte-Oriako Udalean emandako zerbitzuak, eskabidean adierazi badira, ez dira dokumentu bidez egiaztatu beharko eta hautagai bakoitzaren espedientean dauden datuetan oinarrituta



ebaluatuko dira. Besteren kontura enpresa pribatuan egindako lana enpresa-ziurtagirien bidez egiaztatuko da (betetako eginkizunak zehaztuta), edo lan-kontratuaren eta aplikatzekoa den lan-hitzarmenean adierazitako kategorien funtzio edo erantzukizunak jasotzen dituen dokumentuaren bidez.

Kasu guztietan, hala administrazioan nola enpresa pribatuan izandako lan-esperientzia ziurtatuztat jotzeko, Gizarte Segurantzak igorritako «Laneko bizi-tza» agiria aurkeztu beharko da, horrez gain.

2. Prestakuntza. Ikastaroak erakunde ofizialek edo haiek homologatutako beste batzuek emandakoak izan beharko dira, eta, horiek balioesteko, bakoitzaren gai-zerrenda edo edukia eta iraupena orduka jaso beharko dira.

Ez dira kontuan hartuko informazio hori jasotzen ez duten dokumentuak.

Era berean, epaimahaiak ahalmena izango du zalantzak sor ditzaketen arazoak edo aurreikusi ez direnak ebazteko.

c) Izangaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko zer hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten oposizio-faseko ariketak.

– Datu pertsonalak babestea.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, pertsona fisikoak babesteari buruzkoak, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako araudiak ezarritakoa betetze aldera, izangaien datu pertsonalak tratamenduzko jardura baten barruan sartuko dira. Tratamendu horren helburua langileak hautatzeko prozesu baten kudeaketa eta jarraipena da, bai eta hautaketa-prozesu horretatik sortutako lan-poltsaren kudeaketa ere.

Lasarte-Oriako Udalak, datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik, datu pertsonalak tratatzeko eskubidea dauka, interes publikoaren aldeko xede bat betetzen duelako, datuak legezko betebeharrak baten esparruan tratatzen dituelako, bai eta interesduna alderdietako bat den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako ere.

Era berean, izangaiek partaidetzako eskabidean beren berariazko baimena eman beharko dute beren datuak beste administrazio publiko batzuei emateko. Datuen lagapen horrek helburu bakarra izango du: administrazio publiko horiek legez ezarritako baldintzetan enplegu-eskaintzak egin ahal izatea. Izangaiaren baimena berariaz jasotzen ez bada, lagapenari uko egiten diola ulertuko da.

Datuak eskuratzeko, deuseztatzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko eta tratamendua mugatzeko eskubidea erabili ahal da tratamenduaren arduradunaren aurrean, helbide honetara idatzita: Okendo, 1- 20160-Lasarte-Oria (Lasarte-Oriako Udala). Eskubideen erabileran dagokion arreta jaso ez bada, hautagaiak erreklamazio bat ezarri ahal da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 – 3. solairua – 01008 Gasteiz. Nolanahi ere, Udalaren datuak babesteko ordezkariekin harremanetan jarri ahal da, datuen tratamenduari lotutako edozein gai jorrazteko, posta-helbide honetara mezu bat bidalita: dbo@lasarte-oria.eus.

Bosgarrena. Izangaien onarpena

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du –eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu–; zerrenda hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta Lasarte-Oriako Udaleko Iragarki Oholean eta Udalaren web-orrian (www.lasarte-oria.eus) jarriko da ikusgai.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenda horretan baztertutak agertzen diren izangaiei hamar (10) egun balioduneko epea emango zaie, zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, baztertea eragin duten akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko.

***Seigarrena. Kalifikazio-epaimahaia***

6.1. Osaera: deitutako hautaketa-prozesuaren Kalifikazio Epaimahaia osatzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuak bere 60. artikuluan –urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia–, 896/91 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak, 4. artikuluan eta 6/1989 Legeak, uztailearen 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 31. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

Epaimahaiaik presidente bat, idazkari bat eta alkate-udalburuak zehaztutako mahaiburuak izango ditu, eta epaimahaiko kideek ezingo dute inoiz bost baino gutxiago izan. HAEEK izendatutako ordezkari bat egongo da epaimahaian prozesu osoan zehar, eta beste ordezkari bat euskara-proban.

Lehiaketa-oposizioko Kalifikazio Epaimahaiaren izendapena, berori osatzen duten titular eta ordezkariekin, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, bai eta Lasarte-Oriako Udalaren web-orrian ere, Alkatetzak izendatu ondoren.

6.2. Espezialitatea: epaimahaiaren osaera nagusiki teknikoa izango da, eta boto-eskubidea duten kide guztiek deialdiko lanpostuetan sartzeko eskatzen den titulazio edo maila akademiko bera edo handiagoa izan beharko dute, eta horien erdiak, gutxienez, lanposturako eskatzen den ezagutza-arloko titulazio edo espezializazio bat izan beharko du.

6.3. Parte ez hartzea eta errefusatzea: Kalifikazio Epaimahaiko kideek epaimahaiko kide izateari uko egin beharko diote, alkate-udalburuari jakinarazita, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoarenak bere 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek pertsona hori errefusatzea sustatzeko eskubidea izango dute, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.4. Aholkulariak: egokitzat jotako probak programatzeko edo ebaluatzeko aholkulari espezialistak eduki ahal izango dira, eta aholkulari horiek beren espezialitatearen esparruan soilik emango dute laguntza.

6.5. Osaera eta zereginen programazioa: Epaimahaia lehenengo proba egin aurretik osatuko da. Epaimahaia osatzeko ekitaldian epaimahaikide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute, eta saio horretan dagozkion neurriak hartuko dira hautaketa-prozesuaren berezko jarduera guztiak objektibotasunez eta eraginkortasunez programatu, gauzatu eta ebaluatzeko.

6.6. Jarduteko prozedura:

a) Kalifikazio Epaimahaiaren jarduna, une oro, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoarenak ezarritakora egokituko da. Epaimahaia ezingo da osatu eta ezingo du jardun kide gehienak eta gutxienez hiru (3) ez badaude, titularrak nahiz ordezkariak izan, eta zenbaketa horretatik kanpo geratuko da idazkaria. Erabakiak hartzeko, Epaimahaiko kideen gehiengoak baiezko botoa eman beharko du, eta berdinketa egonez gero, epaimahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko du. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik; hark hitza bai, baina ez du botorik izango.

b) Nolanahi ere, Kalifikazio Epaimahaiaik arau horiek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu eta, era berean, probak egiteko behar diren egokitzapen guztiak egiteko neurri egokiak hartuko ditu.

c) Epaimahaiaik hautatutako hautagai-kopuruak ezin izango du gainditu deialdian ateratako plaza-kopurua.

Hala ere, lanpostua beteko dela ziurtatzeko, hautatutako pertsonak behin betiko kontratua sinatzeari uko egiten badiu, haren ondoren agertzen diren hautagaien zerrenda osagarri bat eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Hautagaietako batek ere ez baditu proba baztertzailerik guztiak gainditzen, deialdia hutsik geratuko da.

Epaimahaiburuaren eta haren ordezkariaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo hari eragiten dion legezko beste arrazoiren bat badago, ordezkari horretarako izendatutako mahaikideak hartuko du mahaiburutzat eta, hura ez badago, Kalifikazio Epaimahaiko kiderik zaharrenak.

Idazkari titularren edo haren ordezkariaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo titularrari zein ordezkariari eragiten dien legezko kausaren bat gertatzen bada,



Kalifikazio Epaimahaiko beste edozein kidek jardungo du haren ordezkariaren bidez, gehiengoaren erabakiaren bidez hautatuta.

Kalifikazio Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta haren ardura izango da prozedura objektibotasunez egin dadin zaintzea. Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri hauen aplikazioari buruz sor daitezkeen zalantza guztiak ebazteko dituzte, eta lehiaketa-oposizio hau behar bezala gauzatu dadin beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, horietan aurreikusitako kasu bakoitzeko dagokienez hartu beharrezko irizpideak ezarritik.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, Kalifikazio Epaimahaiak jakiten badu deialdi honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituen hautagairen bat dagoela, interesdunari entzunaldia eman ondoren, hautagai hori kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean hautagaiak zer oker eta faltakeria jarri dituen adierazita.

Lasarte-Oriako Udaleko langile ez diren epaimahaikide eta aholkulariek dagozkien dietak eta kalte-ordainak jasoko dituzte.

Zazpigarrena. Azterketen fasea (oposizioa).

Lehenengo ariketaren deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarki-oholean argitaratuko da, bai eta Udalaren web-orrian ere, eta azterketaren eguna, ordua eta tokia adieraziko da horretan.

Hurrengo ariketak ere Kalifikazio Epaimahaiak iragarriko ditu Udalaren web-orrian.

Elkarrekin egin ezin diren ariketetan, izangaiak parte hartzeko ordena zozketa bidez erabakiko da. Epaimahaiak egingo du zozketa hori osakeraren egunean, eta emaitza izangaiak jakinaraziko die 364/1995 Errege Dekretuak, martxoaren 10ekoak, 17. artikuluan ezartzen duenari jarraituz.

Oposizio-fasean ondorengo bi ariketa hauek egongo dira:

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzaileria izangai guztientzat.

Bi atal izango ditu, bata teorikoa eta bestea praktikoa.

1. Proba teorikoa. 1. mailako ofizial errementariaren lanpostuaren eginkizunei eta/edo eranskinen agertzen diren gaiak buruzko galderei erantzun beharko diete. Epaimahaiak erabakiko du azterketa test motakoa izango den ala ez, bai eta puntuatzeko modua ere.

Proba honetan, gehienez ere 10 puntu lortu ahal dira eta prozesuan jarraitzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

2. Proba praktikoa: 1. mailako ofizial errementariaren lanpostuaren eginkizunekin eta gaitasunekin lotutako proba edo probak egin beharko dira.

Proba honetan, gehienez ere 20 puntu lortu ahal dira eta prozesuan jarraitzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Bigarren ariketa: Euskara. Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dira. Nahitaezkoa eta baztertzaileria izangai guztientzat. «Gai» edo «ez-gai» kalifikazioa jarriko da.

1. hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko probak egingo dira.

Ez dute euskarako azterketa egin beharko euskararen ezagutza-probak hasi aurretik Epaimahaiari 1. hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu dioten pertsonak.

Euskarazko titulazioen baliozkotzea lege hauetan dago jasota: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketak ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena.

1. hizkuntza-eskakizuna honako agiri hauen bidez egiaztatzen ahal izango da:

— HAEK (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) igorritako ziurtagiria, 1. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko besteren bat egiaztatzen duena.



– Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera.

1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko frogak Lasarte-Orian edo HAEEK horretarako adierazitako beste edozein tokitan egin ahalko dira. Nolanahi ere, izangaiek berek ordaindu beharko dituzte proben ondorioz izan ditzaketen bidaia-gastuak, mantenu-gastuak eta bestelakoak.

Zortzigarrena. Azterketen faseko prozedura

Kalifikazio Epaimahaiak egokitzen jotzen badu, Zazpigarren Oinarrian ezarritako ariketen ordena aldatu ahal izango da, bai eta egun berean proba bat baino gehiago egitea erabaki ere; hala eginez gero, aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak soilik ebaluatuko dira.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian ezarritako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko kasua izan bada ere, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira behin betiko.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituak dizkie egokitzapenak behar izanik eskabidean hala adierazi dutenei, gainerako parte-hartzaileen aukera berberak izan ditzaten, baldin eta hori eginez probaren edukia desitxuratu ez bada eta eskatutako gaitasun-maila murriztu edo kaltetzen ez bada.

Ariketa baztertzailer bakoitza amaitu ondoren, Kalifikazio Epaimahaiak ariketa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du Lasarte-Oriako Udalaren iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian.

Era berean, Kalifikazio Epaimahaiak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu gaitasun-faseko idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, esaterako, ariketa horiek izangaiak nor diren jakin gabe zuzentzea.

Bederatzigarrena. Merezimenduen fasea (lehiaketa)

Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz, eskabidean aipatu eta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuen bidez egiaztatu badira, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data kontuan hartuta:

– Bete beharreko lanpostuari dagokionez egindako lana –hau da, lehen mailako ofizial errementariaren lanak–: gehienez 0,15 puntu hilean, 12 puntu gehienez ere.

– Bete beharreko lanpostuari dagokionez egindako lana –hau da, bigarren mailako ofizial errementariaren lanak–: gehienez 0,8 puntu hilean, 7 puntu gehienez ere.

– Bete beharreko lanpostuaren eginkizunetako batzuekin egindako beste lan batzuk (errementari peoi espezialistaren lanak edo antzekoak): 0,08 puntu hilabeteko, eta gehienez ere 3 puntu.

Merezimendu horiek egiaztatzeko ziurtagirietan, bete diren eginkizun guztiak zehaztu beharko dira, eta lanpostuari dagozkion funtzio gehienak agertzen ez badira, epaimahaiaren irizpidearen arabera baloratuko dira.

Kotizazio-agirietan, kotizazio-mailak lehen mailako ofizialaren, bigarren mailako ofizialaren edo, hala badagokio, peoiaren kategoriari dagokiona izan beharko du, eta gutxienez lau (4) hilabeteko lan-esperientzia jarraitua izan beharko du enpresa bakoitzean, baloratu ahal izateko.

– Prestakuntza osagarria: gehienez ere 9 puntu.

Lanpostuari berezkoak zaizkion eginkizun eta erantzukizunak betetzeko baliotsutzat jotzen den prestakuntza osagarria baloratuko da, eta 10 ordu edo gehiagoko iraupena izan beharko du. 0,10 puntu gehituko dira gutxiengoa gaindituz egindako ordu bakoitzeko.

Ondorio horietarako guztietarako, honako hauek hartuko dira aintzat:



- Lan Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntza, baldin eta lanpostuaren eginkizunen berezko arriskuekin lotuta badago eta enpresa homologatuek eman badute. Atal honetan gehienez ere 3 puntu emango dira.
- Lanpostuaren berariazko eginkizunekin zerikusia duten beste prestakuntza osagarri batzuk: (Adibidez, jasogailuak erabiltzeko edo lanak egiteko beharrezkoak diren makinak maneiatzeko prestakuntza) Izango dituen eginkizunekin lotuta dagoen edo egin beharreko teknketan edo burutzapenetan lagungarria izan daitekeen prestakuntza espezifikoa izan beharko du. Atal honetan gehienez ere 3 puntu emango dira.
- Errementaritzako Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloko titulazioa izatea, 2,5 puntu; eta goi-mailakoa bada, 3 puntu. Goi-mailako puntuazioak erdi-mailakoa kanpo uzten du.

Hamargarrena. Kalifikazio Epaimahaiaren proposamena.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa bi faseetan lortu dituen puntuak batuta lortuko da, eta batura horrek erabakiko du hautagaiak lehenesteko hurrenkera.

Berdinketa egonez gero, lehenetasuna ordena honi jarraituz erabakiko da:

- a) Emakumeei lehenetasuna emango zaie, kategoria honetan % 40 baino gutxiagoko ordezkariak dutelako.
- b) Proba praktikoetan puntu gehiago lortzea.
- c) Prestakuntza osagarrian puntu gehiago lortzea.
- f) Bete beharreko lanpostuarekin lotutako esperientzia handiagoa izatea.

Ariketak baloratu ondoren, Epaimahaiak iragarki-oholean jarriko ditu lehiaketa-oposizioa gainditu duten izangaien izenak, beheranzko hurrenkera, lortutako puntuaren arabera.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdi honen xede den lanposturako kontratazio-proposamenarekin batera.

Epaimahaiak ezin izango du, inola ere, deitutako lanpostua baino hautagai gehiago proposatu, lan-poltsarako izangaiak izan ezik.

Epaimahaiak Lasarte-Oriako Udaleko organo eskudunari igorriko dio akta, eta hark egingo du dagokion kontratazioa.

Proposatutako izangaiak, hautagaia hautatzeko proposamena argitaratzen denean ezarritako epearen barruan, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, bai eta bere lana egiten hasteko kontratua sinatu ere.

Izangaiak ez badu ezarritako epean egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezinbesteko arrazoiak egon ezean, ezin izango da kontratatu eta haren jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira. Hori gertatuz gero, gainditu dutenen zerrendan azken kalifikazioaren hurrenkera arabera hurrengo postuetan dauden pertsonen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

Hamaikagarrena. Praktiken eta trebakuntzaren aldia, eta kontratazioa.

Alkate-udalburuak kontratu finkoa egingo dio Epaimahaiak proposatutako izangaiari, dagokion bi hilabeteko probaldiarekin.

Probaldiak irauten duen bitartean eta probaldi horren ebaluazio-txostena onartu bitartean, jatorrizko lanpostua/kontratua gordeko diote.

Probaldia hautaketa-prozesuko beste fase bat izango da, eta azken kalifikazioa honako hau izango da: «gai» edo «ez gai».

Aipatutako probaldia amaitu aurretik, dagokion arduradunak txosten bat prestatuko du langileak egindako lanari buruz, eta honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Langilearen gaitasun eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren zentzua eta eraginkortasuna, prestasuna eta ekimena lanean eta lanerako interesa.



– Lantaldera egokitzeko gaitasuna.

Frogaldiaren arduradunak ezarritako kalifikazioa Alkatetzari bidaliko zaio eta, haren proposamena txostenean jasotakoarekin bat ez badator, arrazoitu egingo da.

Era berean, kalifikazio-txostena langilearen aldekoa ez bada, langileak alegazioak aurkezteko epea izango du.

Aldi baterako ezintasunagatiko, amatasunagatiko, aitatasunagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko baimena hartzen bada, probaldia etengo da, eta lanera itzultzean hasiko da berriz ere kontaktzen geratzen den probaldiari dagokion epea.

Kontratua egin aurretik, eta Alkatetzak hala irizten badio, langileak lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasuna duela egiaztatzeko beharrezkoak diren azterketa medikoak eta probak egingo dira, eta kontratatua izateko eskubideak galduko ditu gai ez dela edo gai dela baina mugak dituela deklaritzen badute.

Hamabigarrena. Gertakariak

Kalifikazio Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian lehiaketa-oposizioa ezin hobeto eta behar bezala gauzatzeko behar diren erabakiak hartzeko.

Hamahirugarrena. Aurkaratzeak

Deialdi hau, berorren oinarriak eta deialditik nahiz epaimahaiaren jokabidetik erator litezkeen egintza administratibo guztiak, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako moduan eta epeetan aurkaratu ahal izango dira.

ERANSKINA

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak: 14. eta 28. artikulua.
2. Udal-antolaketa. Udal-organoak.
3. Intimitaterako eskubide konstituzionala. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa: 3. artikulua: Datu pertsonalen, fitxategien eta datuen tratamenduaren definizioa, eta 4. artikulua, 1. eta 2. zenbakiak.
4. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: Tratu- eta aukera-berdintasuna.
5. Errementaritzako material eta erremintak.
6. Arotzeria metalikoko eta soldadurako adierazpen grafikoa.
7. Soldatutako junturak.
8. Soldadura oxiazetilenikoa.
9. Elektrodo estalizko soldadura.
10. Arotzeria metalikoko konformazioa.
11. Oxiebaketa.
12. Hiri-altzarien piezkatzea.
13. Geometria eta aritmetika.
14. Planoak interpretatzea.
15. 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbanakoen babeserako ekipoak erabiltzerako orduan, segurtasunari eta osasunari dagokienez, bete behar dituzten gutxieneko baldintzei buruzkoa.
 - a) 10. artikulua. Langileen betebeharrak.
 - b) I. Eranskina. Norbera babesteko ekipamenduen zerrenda adierazgarri eta ez-zehatza.
 - c) III. Eranskina. Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea eska dezaketen jardueren eta jarduera-sektoreen zerrenda adierazgarri eta ez-zehatza.



LASARTE-ORIA

UDALA-AYUNTAMIENTO

16. 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun- eta osasun-seinaleen gutxieneko baldintzei buruzkoa.

a) 4. artikulua. Seinaleztapena erabiltzeko irizpideak.

b) I. Eranskina. Lantokiko segurtasun- eta osasun-seinaleei buruzko gutxieneko xedapen orokorrak.

c) II. eranskina. Segurtasun-koloreak.

d) III. eranskina. Panel-itxurako seinaleak